



## **ALDEZ AURREKO KONTSULTA, NAFARROAKO BOLUNTARIOAREN SARIA ARAUTZEN DUEN FORU DEKRETUAREN PROIEKTUA PRESTATZEKO.**

Hala xedatzen baitu 133.1 artikuluan Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legeak, lege aurreproiektu bat edo erregelamendu proiektu bat egin aurretik, kontsulta publiko bat gauzatuko da, Nafarroako Gobernu Irekiaren Atariaren bidez, non jasoko baita zer iritzi duten etorkizuneko arauaren eraginpean gerta litezkeen subjektuek eta ordezkariak handieneko erakundeek, honako hauei buruz:

- a) Ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak.
- b) Araua onestea beharrezkoa eta egokia den.
- c) Arauaren helburuak.
- d) Aukeran dauden beste konponbide batzuk (arauemaileak eta arauemaile ez direnak).

Dokumentu honen helburua da Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Legearen 133.1 artikulua planteatzen dituen galderei erantzutea, eta Nafarroako Boluntarioaren saria arautzen duen Foru Dekretuaren proiektua egin aurreko kontsultaren oinarri izatea, herritarrek parte hartzeko eta ekarpenak egiteko aukera izan dezaten.

- a) Ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak.  
Nafarroako Boluntariotzari buruzko martxoaren 27ko 2/1998 Foru Legearen 15. artikulua ezartzen duenez, Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Boluntariotzaren Kontseiluaren iritzian oinarrituta, urtero emanen dio Nafarroako Boluntarioaren saria pertsona fisiko edo juridiko bati boluntariotzan arduratsu aritzeagatik, boluntariotzan eredu soziala izateagatik edo boluntariotzako jarduerak garrantzi berezia izateagatik.

Foru lege horrek berak xedatzen du erregelamendu bidez ezarriko direla betekizun zehatzak.

- b) Araua onestea beharrezkoa eta egokia den  
Nafarroako Boluntariotzari buruzko Foru Legea 1998koa bada ere, gaur egun oraindik ez da erregelamendu bidez garatu, eta, beraz, ezin izan dira sari horiek eman. Ondorioz, araudi honen bidez, mekanismo bat ezarri nahi da boluntarioek egiten duten lana nabarmentzeko, aintzatespen publiko hori benetan gauzatu ahal izateko.

2022ko otsailaren 9an, Nafarroako Gobernuak Nafarroako Boluntariotzaren II. Plana onetsi zuen, eta haren jarduera ildo nagusietako bat da boluntariotza sustatzea, 2/1998 Foru Legean ezarritakoarekin bat etorritik. Sustapen bide nagusietako bat da Nafarroako Boluntarioaren saria ematea urtero (maiztasun hori ezartzen du araudiak).

- c) Arauak zer helburu dituen  
Arauren helburua da Boluntarioaren saria arautzea, helburua, hautagaitzen aurkezpena, hautaketa irizpideak eta saria emateko sistema jasoz.
- d) Aukeran dauden beste konponbide batzuk (arauemaileak eta arauemaile ez direnak).  
Nafarroan boluntarioa den pertsona fisiko edo juridiko bat saritzea arautu nahi denez, eta 1998ko Boluntariotzari buruzko Foru Legean ezarrita dagoenez, izaera orokorreko beste arau baten bidez arautu behar da.

Ez da aurreikusten beste konponbiderik (arauemailerik edo arauemaile ez denik).

Agiri hau interesdunen eskura jartzen da Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren Gobernu Irekiaren Atarian, bat etorritz Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalariburuzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 133. artikuluko 1. eta 2. apartatuetan xedatutakoarekin.

Iruñean, 2022ko abuztuaren 11n.

GOBERNU IREKIAREN ETA HERRITARRENTZAKO ARRETAREN ZERBITZUKO ZUZENDARIA

Itziar Ayerdi Fernández de Barrena